EKINTZA	Gure kontratista eta hornitzaileen artean gizarte-erantzukizuna sustatuko dugu.
DESKRIBAPENA	Kontratisten eta hornitzaileen homologazio-prozesuan, langileen lan-baldintzei buruzko alderdiak berrikusiko ditugu. Petronorreko erantzukizun sozialeko estandarrak jakinaraziko dizkiegu, eta antzeko estandarrak dituztenak baloratuko ditugu. Gure taldeko beste zentro batzuetatik egiten diren homologazioek irizpide hauei ere jarraitzeko koordinatuko gara. Fundazioekin aliantzak ezarriko ditugu, enplegarritasun zaila duten pertsonen enplegua susta dezaten.
ADIERAZLEA	Enpresen homologazio kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Erantzukizun Sozial Korporatiboko irizpideak kontuan hartu ditugu enpresen homologazio-prozesuetan, eta pertsonen ordainsariak alderdiak aztertu ditugu. Etika eta jokabidearen araua nahitaezkoak izatea erabaki dugu, hornitzaileak kontratatzean. Gure helburua da neurri horien betetze-kontrolak garatzea ebaluazio-prozesuetan. 2015ean bederatzi homologazio egin ditugu.

8. programa

Kontsumitzaileen gaiak

Bezeroaren arreta

EKINTZA	Bezeroen gogobetetzea hobetzea.
DESKRIBAPENA	Repsol Butano, Asfalnor eta Esergi konpainietako bezeroak bisitatuko ditugu, egindako ekintza-planek gogobetetze-inkestetan jasotako aukerak kontuan hartzen dituzten egiaztatzeko. Bezeroek nabarmendutako alderdirik nabarmenenak dira produktuen kalitateari, kexen ebazpenari eta emandako arretari buruzkoak. Horrez gain, aplikatutako sistematikaren asmoa da prozesu eraginkorrak lortzea, ezarpen-maila handiarekin bezeroarekiko harremanean.
ADIERAZLEA	Bezeroei egindako bisita.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Repsol Butano, Asfalnor eta Esergi enpresetako bezeroak bisitatu ditugu ekintza-planekin duten gogobetetasun-maila ezagutzeko, gure ustez, bezeroarengandik hurbil egoteak eztabaidak konpontzen laguntzen duelako. Bestalde, produktuaren eta zerbitzuaren kalitatearen aurrean zer espero duten hobeto jakin dezakegu.

Marketin arduratsua

EKINTZA	Erregaien prezioaren aldaketaren inguruko mitoak eta egiak argitzea.
DESKRIBAPENA	Erregaien prezioaren aldaketan eragina duten alderdien berri emango dugu, gardentasunez, eta informazio osoa emanez. Informazio hori, publikoak findegira egindako bisitetan erakusten den materialean jasoko da.
ADIERAZLEA	Zerbitzu orokorrek antolatutako bisita kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Findegira etortzen diren taldeei erregaien azken prezioan eragiten duten alderdi buruzko informazioa eman diegu. Guztira, 69 erakunde izan dira, eta 2.415 pertsonak parte hartu dute.

Produktu eta zerbitzuen segurtasuna

EKINTZA	Produktu eta zerbitzuei buruzko informazio oso, zehatz eta ulergarria ematea.
DESKRIBAPENA	Hornitzen ditugu produktuen erabilera eta kontserbazio seguruari buruzko alderdi garrantzitsu guztien informazio oso, zehatz eta ulergarria emango dugu. Horrela, produktuaren kalitatearen integritate egokia bermatuko dugu, eskuratzen denetik erabiltzen den arte. Albaranetan produktuaren segurtasunari eta erabilerari buruzko datuak gehituko dugu, eta arreta berezia jarriko diegu eraikuntzaren arlokoei, hala nola asfaltoei.
ADIERAZLEA	Gure produktuen bezero kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Bisitariei eta gure bezeroei (lau hornitzaile handi) produktu bakoitza erabiltzeko baldintzak jakinarazi dizkiegu. Informazio horrekin, fabrikatzen ditugun produktuen zentzuzko erabilera egitea lortuko dugu.

EKINTZA	Kontsumitzaileei produktuen osasunaren eta segurtasunaren alderdiei buruzko informazioa ematea.
DESKRIBAPENA	Taldeen findegira egindako bisitetan, kontsumo seguruan eta osasunean eragina duten alderdi garrantzitsuei buruzko informazioa emango dugu.
ADIERAZLEA	Kanpoko harremanen bidez artatutako bisita.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Laurogeita hamar pertsona-talde etorri dira 2015. urtean zehar, eta gure produktuak gaizki manipulatzeko edo erabiltzeko badira, osasunean eragin ditzaketen alderdi guztien berri eman diegu, izan ere, gure ustez, produktuak hobeto ezagutzen badira, kontsumo arduratsua egingo delako eta bezeroek gure markarekin jarraituko dutelako.

EKINTZA	Kontsumitzaileei arriskuei eta produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa ematea.
DESKRIBAPENA	Kontsumitzaileei produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa emango diegu, eta horrek dakartzan arriskuez ohartarazi. Produktua banatzaileei saltzeko dokumentazioan, fabrikatzen ditugun produktuen kontsumo seguru eta eraginkorreko baldintzei buruzko informazioa emango dugu.
ADIERAZLEA	Produktua hornitzen zaien bezero kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Produktua hornitzen diegun lau hornitzaile handiei gure produktuen arriskuen eta erabilera egokiaren inguruko informazioa eman diegu. Informazio horrekin, fabrikatzen ditugun produktuen kontsumo seguruaren eta arduratsuaren inguruko alderdiak hedatzen ditugu.

9. programa

Parte-hartze aktiboa eta komunitatearen garapena

Tokiko edukia

EKINTZA	Boluntarioak adoretzea eta laguntzea erkidegoaren onerako.
DESKRIBAPENA	Tokiko boluntarioen elkarteei lagunduko diegu, baliabide ekonomiko handiagoak eta materialak emanez. Horrela, inguruko tokiko erkidegoetan baliabide gehiago jarriko ditugu. Boluntario-talde horiek babes zibilarekin edo kultura eta gizarte arloko boluntarioekin lotu daitezke.
ADIERAZLEA	Diruz lagundutako jarduera kopurua, boluntarioen elkarteen ekimenei esker.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Zenbait jarduera egin ditugu inguruko boluntarioen elkarteekin (Muskizeko Babes Zibila, Elikagai Bankua, Muskizeko Scout taldea, Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarte eta Gurutze Gorria) ekipamendua bultzatzeko eta haren jarduerak sentikor bihurtzeko edo finantzatzeko. Horrez gain, bost boluntariotza kolektiboko ekintzetan parte hartu dugu Petronorren.

EKINTZA	Enplegu-sorkuntzan inbertitzeko erabakien eragina aztertzea.
DESKRIBAPENA	Tokiko enpleguan izandako eragina balioetsiko dugu Petronorrek instalazioetan egiten duen jarduera bakoitzean.
ADIERAZLEA	Inbertsioen bidez sortutako enplegu kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	2015eko geldialdian 45 miloi euro inguru inbertitu ditugu, eta 1.000 enplegu sortu dira bi hiletan.

EKINTZA	Beste produkzio-sektore batzuei laguntzea, lehen sektoreari nagusiki.
DESKRIBAPENA	Petronorren lurrak egituratuko ditugu, landa-kalifikazio moduan, enpresen lehen sektoreko autoenplegu-ekimenak bideratzeko. Jarduera-plan bat garatuko da erakunde publikoekin batera, lurzoru egokia erabili ahal izateko. Lur horiek Petronorrenak dira, eta hitzartutako eta berrikus daitekeen aldi baterako erabil dezaten lagako ditu.
ADIERAZLEA	Autoenplegatu kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Aribidean.
AMAIERAKO TESTUA	Itsaslur-Pobeña bideratzen aurrera egin dugu, nekazaritza-herrixkak abian jarri aurretik administrazioaren baimenak lortzeko. Dokumentazio teknikoa eginda dago. Bideratzen hasi gara. Oraindik ez da enplegurik sortu.

EKINTZA	Tokiko ingurunearekin dagoen konpromisoa handitzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Petronorretik hurbil dagoen lurraldearen garapenaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu, gaur egun egiten ari garen moduan. Aliantzak eta lankidetzak garatuko ditugu beste produkzio-sektore batzuekin, hala nola lehen sektorearekin. Hori horrela, lankidetzan arituko gara beste erakunde batzuekin batera nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza esparruetan garapenarekin zerikusia duten proiektuetan.
ADIERAZLEA	Petronor enpresari tokiko esparruan egindako jarduerak.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Petronorren lurren kontzesioan parte hartu dugu, Petronorretik hurbil dagoen eremuan nekazaritza-jarduerak bultzatzeko helburuarekin. Izan ere, guretzat, findegitik hurbil dagoen lurraldea etengabe garatzea garrantzitsua da.

EKINTZA	Enpleguari eusten eta tokiko enplegagarritasuna handitzen laguntzea.
DESKRIBAPENA	Konpromisoak mantenduko ditugu Tokiko Garapen Agentziekin eta tokiko hornitzaileen plan eragilearekin, inguruko biztanleentzako zuzeneko eta zeharkako lan-aukerak sortzeko. Somorrostroko Prestakuntza Eskolarekin lankidetzan arituko gara, praktiketarako ekipamenduak eskainiz, ikasketa-programaren gainean orientatuz eta kontratisten langileei prestakuntza ematea sustatuz. Antolatutako etenetan zehar, sortutako enpleguaren zati bat enplegu-kolokatasun egoeran dauden inguruko langileek hartzea saiatuko gara.
ADIERAZLEA	Muskizeko, Abantoko eta Zierbenako langile kopurua. Muskizen, Abanton eta Zierbenan bizi diren enpresa kontratistetako langileen kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Bertako enplegua handitzen lagundu dugu: kontratatutako pertsonen %60, fabrika kimikoko operadoreerako azken hiru ikastaroetan. Inguruko udalerrietako pertsonak izan dira (Muskiz, Zierbena eta Abanto). Ekipamenduak eta fabrikako materiala laga diogu Goi-mailako Prestakuntza Zentroari. Geldialdietan inguruko 100 langabezi kontratatu ditugu. Hornitzaileen ekintza planaren prozesua garatzen ari gara.

EKINTZA

Inguruko biztanleen kezka ebaluatzea.

DESKRIBAPENA

Eragiketen inguruan kokatuta dauden biztanleek gizarte, lan eta segurtasunaren arloetan dituzten kezka ebaluatuko ditugu. Arlo horretan Panel Publiko Aholkulariek proposatzen dizkiguten ekintzak ezarriko ditugu. Gorabeherak egiazko informazioarekin bideratzeko beharrezkoa den informazioa emango dugu, teknizismoak erabiltzea saihestuz, ulergarriagoa izan dadin.

ADIERAZLEA

Panel Publiko Aholkulariaren saio kopurua.

BURUTU DEN URTEA

2015

EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N

EGOERA

Burututa.

AMAIERAKO TESTUA

Sei saio egin ditugu Panel Publiko Aholkularietan, hiru udalerrri bakoitzean, eta Petronorrek eta panel egileek proposatu dituzten gaiak jakinarazi ditugu.

EKINTZA**Bekak eskainiko ditugu tokiko herrietako ikasleentzat.****DESKRIBAPENA**

Inguruko Lanbide-Heziketako zentroetan ikasten duten ikasleei bekak ematen jarraituko dugu, finketaren sektorearekin lotutako familia profesionalen artean.

ADIERAZLEA

Emandako beka eta laguntza kopurua.

BURUTU DEN URTEA

2015

EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N**EGOERA**

Burututa.

AMAIERAKO TESTUA

Pertsonen kultura-garapenak Petronorrentzat duen garrantziari esker, beka-programak beste urte batez jarraituko du. Aurreko urteetan bezala, Muskizen, Abanton eta Zierbenan bizi diren ikasleentzako bekak hirugarren hiru hilekoan argitaratu dira 2015. urtean. 2014/2015 ikasturtean 33 beka eman zaizkie adierazitako ikasleei. 2015/2016 ikasturtean 50 beka banatuko dira guztira.

EKINTZA	Lankidetzaren sustatzea tokiko enpresa-erakundeekin.
DESKRIBAPENA	Enpresa-lankidetzako elkarte bat sortuko dugu hornitzaileekin. Garapen-batzorde iraunkorra sortuko dugu, erabakitzeke kide anitzeko organo gisa, eta garatu beharreko alderdiak aztertuko ditugu, hala nola langatuen prestakuntza, enpresen eta hornitzaileen arteko lankidetzak eta abar. Somorrostroko Lanbide Heziketako Zentroa izan daiteke langileen enplegagarritasuna handitzeko beharrezko eta berariazko prestakuntza ematen duen erakundea.
ADIERAZLEA	Atxikitako enpresa kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Prestakuntza eta praktiketarako proiektuak egin ditugu langabeentzat, haien prestakuntza eta enplegua hobetzeko, Hornitzaileen Ekintza Plana abian jartzeaz gain, Lanbide Heziketako zentroekin eta tokiko garapen-agentziekin. Halaber, lau hitzarmen sinatu ditugu irakaskuntza arautuko eta etengabeko prestakuntzako heziketa Zentroekin. Bestalde, prestakuntza-plan bat egin dugu eskualdeko langabeentzat, FORLAN tokiko agentziarekin eta Somorrostroko Prestakuntza Zentroarekin.

EKINTZA	Muskizko herria ingurumenaren arloan berritzea, tokiko boluntarioria sustatuz.
DESKRIBAPENA	Ingurumen-proiektuak egingo ditugu, Muskizko biztanleen eta Petronorreko langileen iritzia kontuan hartuz. Proiektu horiek, hurbil dagoen inguruan garatuko dira: Barbadun ibaian, La Arena hondartzan, estuarioko dunetan, itsas paduretan eta kostaldean. Ibaiak eta itsasoak ekarrita flotatzen ari diren materialak kenduko dira, landare-espezie inbaditzaileak edo ingurumen-sentsibilizazioko kanpainak.
ADIERAZLEA	Muskizen egindako Ingurumen Plan kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Petronorrek aktiboki parte hartzen du Barbadun ibaiaren fauna eta flora babesteko. Helburu horri jarraituz, hainbat berreskuratze programa egin ditugu bertako zenbait elkarterekin, esaterako, Enkarterrialde Landa-Garapeneko Elkarterekin. Plan berezi bat egiten ari gara, eta dagoeneko baso-erabileretatik nekazaritza-erabileretara aldatzeko beharrezkoa den lehen izapidea gainditu dugu.

Gizarte-inbertsioa

EKINTZA	Hezkuntzaren sarbidearen eta kalitatearen hobekuntzan parte hartzea.
DESKRIBAPENA	Hezkuntza arloko ekipamendu-proposamenak, ordenagailuak eta inguruko ikastetxeek eskatzen dizkiguten eta erakunde publiko autonomikoaren ardura ez diren bestelako material pedagogikoak finantzatuko ditugu.
ADIERAZLEA	Ikastetxeekin egindako lankidetzaren kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Desfibriladore bat eman diogu Dolores Ibárruri DBHri, eta ikastetxeetako gurasoen elkarteekin lankidetzan aritu gara. Horrez gain, Energiari eta industriako produktuen aplikazioei buruzko tailer zientifikoak ikastetxeetara eta ikasleen familiengana gehiago hurbiltzea da gure helburua.

EKINTZA	Gizarte-inbertsioko programekin jarraitzea inguruko herrietan.
DESKRIBAPENA	Erakundeen esparruan nagusiki ezagunak diren tokiko taldeek sustatutako jarduerak batera finantzatuko ditugu. Talde horien jarduera-esparruak arlo hauetakoak dira: <ul style="list-style-type: none"> - Kirola. - Kultura. - Hezkuntza eta gizartea. - Soziokomunitarioa. - Solidarioa, GKEak, fundazioak eta abar.
ADIERAZLEA	Finantzatutako elkarte kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Gizarte, kultura edo kirol elkarte bakoitzaren jarduera-planari dagokion urteko finantzazioa egin dugu. Inguruko elkarte-egituraren jarduerak batera finantzatzeko eskaerei erantzun diegu, eta guztira, 61 elkarte eta haien jarduerak finantzatu ditugu.

EKINTZA	Ikasleentzako praktikak eskaintzea.
DESKRIBAPENA	Unibertsitateen eta Lanbide Heziketako zentroyen prestakuntza eta informazio eskaera aztertuko dugu, gizarterako zerbitzuaren irudia eta profesional berrientzako negozio-ikuspegi objektiboagoa agerraraziz. Horrela, gizarte-erantzukizun handiagoa lortuko dugu inguruarekin.
ADIERAZLEA	Beka jasotako edo praktiketan aritutako pertsona kopurua (gutx. 1, geh. 3). Artatutako eskaeren ehunekoa.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Eskaera guztiei erantzun diegu, eta hiru ikasle hartu ditugu beka programan edo praktiketan.

EKINTZA	Bisitak eta mintegiak eskaintzea unibertsitateei eta Lanbide Heziketako zentzoei.
DESKRIBAPENA	<p>Unibertsitateen eta Lanbide Heziketako zentzoren prestakuntza eta informazio profesionaleko eskaerari erantzuten lortuko dugu. Bi lankidetzaz-jarduera ezarriko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Petronorrerako bisitak eskainiko dizkiegu Lanbide Heziketako zentzoei eta unibertsitateei. - Prestakuntza-hitzarmenak eta praktikak egingo ditugu prestakuntza-profil horiek dituzten erakunde horietako ikasleekin. <p>Laborategia leku egokia da mota horretako jarduerak tekniko-zientifikoak egiteko.</p>
ADIERAZLEA	Artatutako eskaeren ehunekoa.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Ikastetxe eta unibertsitate guztien bisitak artatu ditugu. Guztira, bost bisita jaso ditugu.

EKINTZA

Arreta berezia jartzea talde ahulei enpleguaren arloan.

DESKRIBAPENA

Urteko kontratazio-helburuak ezarriko ditugu enplegu-zentro bereziekin eta industriako produktu eta zerbitzu osagarriekin. Positiboki baloratuko ditugu modu berean jarduten duten edo bestelako gaitasunak dituzten pertsonak kontratatzen dituzten enpresak.

ADIERAZLEA

Enplegu-zentro bereziekin egindako kontratu kopurua.

BURUTU DEN URTEA

2015

EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N

EGOERA

Burututa.

AMAIERAKO TESTUA

Zerbitzuen zati handi bat enplegu-zentro bereziekin kontratatu ahal izan ditugu. Horrekin, Lismi legearen eskaerak gaitutako ditugu. 2016. urterako aurreikusitako ebaluazioetan alderdi horiek kontuan hartuko dira. Adierazlea aldatu nahi dugu, jarraitutako helburura gehiago egokitzeko. Helburua da Lismi legea betetzen laguntzea eta ekimen horietan laguntzea. Hauxe izango litzateke adierazlea: "Material eta zerbitzuen ordainketak enplegu zentro bereziekin".

EKINTZA	Inguruarekiko harremanak indartzea Panel Publiko Aholkularien bidez.
DESKRIBAPENA	Petronorretik hurbilen dagoen inguruarekiko harremanak sustatuko ditugu. Horretarako, gizarte-taldeak eta herritarrak lagunduko ditugu, sustatzen dituzten jardueretan lankidetzan parte hartuz. Panel Publiko Aholkulariak inguruarekin dagoen bi norabideko komunikazio-estrategiako beste foro bat dira, esparru eta jarduera guztietan.
ADIERAZLEA	Emandako laguntza.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Hainbat plan garatu ditugu hurbilen dauden inguruko elkarteei laguntzak emateko. Petronorreko erakundeen artean barne hartu ditugu Izaite, Nanogune eta Bilbao Metrópolis-30. Gizarte eta kultura-ekimeneetan laguntzeko 129 ekintza egin ditugu.

Berrikuntza eta I+G

EKINTZA	Unibertsitateekin eta ikerketa-erakundeekin lankidetzan aritzea.
DESKRIBAPENA	Unibertsitatearekin eta teknologia-erakundeekin lankidetzak mantenduko ditugu, egiten dituzten ikerketetan laguntzeko, ingurumen eta industria-gaietan nagusiki. Horren adibide moduan dugu azken 16 urteetan zehar Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Landareen Biologia eta Ekologia fakultatearekin batera egiten ari garen azterlana. Beste jarduera bat da etenaldietan gune konfinatuetan lan egiten duten pertsonentzako jarraipen-txartelak garatzea eta erabiltzea.
ADIERAZLEA	Unibertsitateekin eta lankidetzaz-zentroekin izandako lankidetzak kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Garapen teknikoak egin ditugu teknologia-zentroekin, gure ustez, industria, unibertsitatea eta teknologia-erakundeak, gizartearentzat erabilgarriak diren produktu eta zerbitzuen garapenean osatzen direlako. Garapen tekniko horietako bat geolokalizatzaile pertsonekin egin da segurtasun arloan, Tecnaliarekin. Bi proiektu garatu dira.

Partaidetza eta elkarrizketa

EKINTZA	Ingurutik jasotako ingurumenaren arloko iradokizunei edo kexei erantzutea.
DESKRIBAPENA	Auzokoek antzematen dituzten eta konpainiak mota horretako ekintzetarako ezarritako protokoloa kontuan hartuz, informazio gehiago behar duten egoerei buruzko kexen edo deien %100ari erantzutea lortuko dugu. Jatorria identifikatzen saiatuko gara, kexa berriro errepikatzea saihesteko.
ADIERAZLEA	Artatutako eskaeren ehunekoa.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Ingurutik jasotako ingurumenaren inguruko iradokizun edo kexa guztiak (%100) kontuan hartu ditugu. Ingurumenaren arloko 132 kexa edo iradokizun artatu ditugu.

EKINTZA	Jasangarritasun Plan hau jakinaraztea.
DESKRIBAPENA	Petronorren 2015eko Jasangarritasun Planean jasotzen diren ekintzen barneko eta kanpoko komunikazio plan bat egingo dugu, bi norabidekoa, konpainiaren alderdi interesdunentzat.
ADIERAZLEA	Jasangarritasun Planaren ekintza eta aurkezpen-ekitaldi kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Plan honen komunikazio eta sozializazio jarduera guztiak egin ditugu, hauek barne hartuz: <ul style="list-style-type: none">- hiru aurkezpen jarduten dugun udalerrietako alkateei.- aurkezpen bat Plan Publiko Aholkulari bakoitzari; guztira, bi.- publizitate bat komunikabideetan.- jardunaldi bat Izaiteren foroan.

EKINTZA	Gure industria-mundua ezagutzera ematea.
DESKRIBAPENA	Gure findegia ezagutzera emango diegu Muskizko biztanleei, gizarte zibileko elkarteei eta erakunde publikoei. Horretarako, informazio-panelean egingo ditugu, hitzaldiak emango ditugu eta foroak sortuko ditugu Muskizko biztanleei iritzi desberdinak ezagutzeko.
ADIERAZLEA	Egindako ekitaldi kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	2015. urtean Petronorrek 15 ekitaldi eta bilera egin ditu: berriketak, zuzendarien elkarrizketak komunikabideetan, Muskizko udalerriko biztanleek gure konplexuko berririk garrantzitsuenak ikus ditzaketen informazio-paneletan eta findegiko berririk garrantzitsuenak azaldu ditugun foroetan.

EKINTZA	Petronorrek altxor publikoari egindako ekarpenaren berri ematea.
DESKRIBAPENA	Petronorrek Foru Ogasunari eta udalei ordaindutako zergei buruzko informazio zehatza emango diegu herritarrei, dagozkien aurrekontuekin alderatuz, Petronorrek egindako ekarpen handia nabarmentzeko. Zergei buruzko informazioaz gain, enpresa eragile moduan gure hornitzaileetan dugun eragin ekonomikoen berri ere emango dugu.
ADIERAZLEA	Hileko bisita kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Gardenkiak erabili ditugu taldeei egiten dizkiegun aurkezpenetan (bat astero). Hor, Petronorrek ordaindutako zergen zenbatekoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun Sailaren bilketa garbitik zer ehuneko ekartzen duen azaltzen da. Bestalde, konpainia kudeatzen duen taldeari zerga-alderdirik garrantzitsuenak jakinarazten zaizkio (hilean behin), eta konpainiako langileei, ekitaldian zehar gertatu diren zerga-berriak.

EKINTZA**Inguruko talde eta elkarteekin elkarrizketa sustatzea.****DESKRIBAPENA**

Elkarrizketa sustatuko dugu inguruko hainbat talde eta elkarterekin, zuzenean eta Panel Publiko Aholkularien bidez.

ADIERAZLEA

Bilera kopurua.

BURUTU DEN URTEA

2015

EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N**EGOERA**

Burututa.

AMAIERAKO TESTUA

Zazpi aldizkako bilera antolatu ditugu findegiaren inguruko taldeekin haien ordezkarien bidez; batzuetan haien lokaletan, eta besteetan gureetan. Horrez gain, Panel Publiko Aholkularien bidez Petronorrek egindako ekintzak jakinarazi ditugu. Horregatik guztiagatik, Petronor positiboki integratzen ari da inguruan.

EKINTZA	Bisitak antolatzea Petronorreko instalazioetara interes-taldeetarako.
DESKRIBAPENA	Langileen senideentzako eta beste talde batzuentzako bisitak egiten jarraituko dugu, gaur egun egiten dugun moduan.
ADIERAZLEA	Bisita kopurua.
BURUTU DEN URTEA	2015
EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N	
EGOERA	Burututa.
AMAIERAKO TESTUA	Elkarte, klub eta erakundeen 80 bisita baino gehiago antolatzen jarraitu dugu 2015. urtean zehar. Bisita horietan, interes-taldeek jakin-min handiena agertu duten alderdiei buruzko informazioa eman dugu. Mota horretako bisitak egiten jarraituko dugu, gure instalazioak eta lan egiteko modua erakusteko.

EKINTZA**Komunikazioa indartzea inguruko herriekin.****DESKRIBAPENA**

Berariazko komunikazio-sistemak izango ditugu bertako erkidegoetarako. Web-orria erabiliko dugu bi norabideko komunikazio plataforman moduan konpainiaren eta alderdi interesdunen artean. Sistema digitalez gain, ohiko baliabideak erabiliko ditugu: komunikabideak eta idatziz zabalduz.

ADIERAZLEA

Argitalpen eta informazio-orri kopurua.

BURUTU DEN URTEA

2015

EKINTZAREN AMAIERA 2015/12/31N**EGOERA**

Burututa.

AMAIERAKO TESTUA

Komunikabideetan, Gaztelu Berri aldizkarian eta beste komunikabide batzuetan modu positiboan agertzea lortu dugu; baita Panel Publiko Aholkularietan ere. Gizarte-sareek, kexen eta erreklamazioen kudeaketak informazioa eman digute inguruak gure jardueren informazioarekin zer espero duten jakin dezagun.

Ekintzen aurkibidea

Lege-oharra	1
Planaren ekintzei buruzko itxiera-txostena 2015eko abenduaren 31n	2
1. programa: Erakundearen gobernamendua	2
Elkarrizketa-prozesuak hartzea akordioak errazteko.	2
Eskumeneko erakundeei gure jarduerak jakinaraztea.	3
Informazio garrantzitsuaren jakinarazpen publikoa hobetzen jarraitzea.	4
2. programa: Giza baliabideak	5
Kultura eta kudeaketa	5
Eskubide ekonomiko, sozial edo kulturalak babesten dituzten erakundeekin lankidetzan aritzea.	5
3. programa: Lan-jarduerak	6
Lan-baldintzak	6
Emakumeak sartzera Petronorreko zuzendaritzan.	6
Enpresaren eta langileen arteko elkarrizketa	7
Barneko elkarrizketa arina izatea sindikatu-taldeekin.	7
Aniztasuna eta adiskidetzea sustatzea	8
Aukera-berdintasuna sustatzea.	8
4. programa: Segurtasuna	9
Kultura eta kudeaketa	9
Gure jokabidearen segurtasunari buruzko ikerketaren emaitzak.	9
Arriskuaren kudeaketa	10
Suteen eta larrialdien kontrako borrokari buruzko prestakuntza ematen jarraituko dugu.	10

Eguneroko jardueretan ekintza-segurtasuneko jarduerak gehitzea.	11
Inguruko herriei simulakroen berri ematea.	12
Segurtasun-jardueretan parte hartzea gure taldeko beste unitate batzuekin.	13
Suteen kontrako defentsa-lehiaketetan parte hartzea.	14
Inguruko udalei Autobabes plana berrikusita aurkeztea.	15
Suteen kontrako parkearen ekipamendua indartzea.	16
Arriskuen ebaluazioa indartzea.	17
Merkataritza-harremanak	18
Laneko segurtasun-estandar handiak sustatzea enpresa kontratistetan.	18
Kontratistaren segurtasunean aurrera jarraitzea.	19
5. programa: Ingurumena	20
Biodibertsitatea	20
Biodibertsitatea babestea.	20
Klima-aldaketa	21
Berotegi-efektuko gasak aztertzeke nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.	21
Kultura eta kudeaketa	22
Ingurumen-ikuspegitik Petronorrek Muskizen duen jarduera kudeatzea.	22
Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioak identifikatzea.	23
Ekintzak gehituko ditugu zarata eta usainak ezabatzeko taldeetan.	24
Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioen inguruko informazioa ematea.	25

Ingurumenaren eragina txikiagotzea jardueren maila guztietan.	26
Ingurumen Baimen Integratua betetzen den ala ez jakinaraztea.	27
Eraginkortasun operatiboa	28
Ura Kudeatzeko Mapa bat egitea.	28
Hondakinen Mapa bat egitea.	29
Instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea.	30
Kontsumoa murriztea eta lurrinaren ekoizpena.	31
CO ₂ igorpenak murriztea.	32
Arriskuen eta ingurumen-eraginaren kudeaketa	33
Ingurumenean, osasunean eta segurtasunean izan ditzakeen eraginak ebaluatzea.	33
Araztutako uraren kalitatea hobetzea.	34
Itsasoko ingurumenean izandako eraginak prebenitzea.	35
Estuarioan izan dezakeen eragina prebenitzea.	36
Aurrerapenak sustatzea estatu mailan isurien kontrolean.	37
Findegiaren eragin bisuala zaintzen jarraitzea.	38
6. programa: Bidezko jardunbideak: Ustelkeriaren kontra eta etika	39
Merkataritza-harremanak	39
Hornitzaileek eta kontratistek jasangarritasunaren inguruan egindako jardueren jarraipena egitea.	39
7. programa: Bidezko jardunbideak: Balio-katea	40
Hornitzaileak eta kontratistak.	40
Gure kontratistei informazio erabilgarria ematea haien onurarako.	40
Gure kontratista eta hornitzaileen artean gizarte-erantzukizuna sustatuko dugu.	41

8. programa: Kontsumitzaileen gaiak	42
Bezereoaren arreta	42
Bezeroen gogobetetzea hobetzea.	42
Marketin arduratsua	43
Erregaien prezioaren aldaketaren inguruko mitoak eta egiak argitzea.	43
Produktu eta zerbitzuen segurtasuna	44
Produktu eta zerbitzuei buruzko informazio oso, zehatz eta ulergarria ematea.	44
Kontsumitzaileei produktuen osasunaren eta segurtasunaren alderdiei buruzko informazioa ematea.	45
Kontsumitzaileei arriskuei eta produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa ematea.	46
9. programa: Partaidetza aktiboa eta erkidegoaren garapena	47
Tokiko edukia	47
Boluntarioak adoretzea eta laguntzea erkidegoaren onerako.	47
Enplegu-sorkuntzan inbertitzeko erabakien eragina aztertzea.	48
Beste produkzio-sektore batzuei laguntzea, lehen sektoreari nagusiki.	49
Tokiko ingurunearekin dagoen konpromisoa handitzen jarraitzea.	50
Enpleguari eusten eta tokiko enplegarritasuna handitzen laguntzea.	51
Inguruko biztanleen kezak ebaluatzea.	52
Bekak eskaintzea tokiko herrietako ikasleentzat.	53
Lankidetzaren sustatzea tokiko enpresa-erakundeekin.	54
Muskizko herria ingurumenaren arloan berritzea, tokiko boluntariotza sustatuz.	55
Gizarte-inbertsioa	56
Hezkuntzaren sarbidearen eta kalitatearen hobekuntzan parte hartzea.	56

Gizarte-inbertsioko programekin jarraitzea inguruko herrietan.	57
Ikasleentzako praktikak eskaintzea.	58
Bisitak eta mintegiak eskaintzea unibertsitateei eta Lanbide Heziketako zentzoei.	59
Arreta berezia jartzea talde ahulei enpleguaren arloan.	60
Inguruarekiko harremanak indartzea Panel Publiko Aholkularien bidez.	61
Berrikuntza eta I+G	62
Unibertsitateekin eta ikerketa-erakundeekin lankidetzan aritzea.	62
Partaidetza eta elkarrizketa	63
Ingurutik jasotako ingurumenaren arloko iradokizunei edo kexei erantzutea.	63
Jasangarritasun Plan hau jakinaraztea.	64
Gure industria-mundua ezagutzera ematea.	65
Petronorrek altxor publikoari egindako ekarpenaren berri ematea.	66
Inguruko talde eta elkarteekin elkarrizketa sustatzea.	67
Bisitak antolatzea Petronorreko instalazioetara interes-taldeetarako.	68
Komunikazioa indartzea inguruko herriein.	69
Ekintzen aurkibidea	70

www.petronor.com

